

ALCATEL

One Touch 809 One Touch 819-aren

Erabiltzailearen eskuliburua



ALCATEL
mobile phones

www.alcatel-mobilephones.com

Euskaltelek itzulitako eta
ekoiztutako eskuliburua



one touch | 8 09

one touch | 8 19

Bizkor hasteko gida

Zure telefona erabiltzeari buruzko informazio gehiago behar baduzu joan www.alcatelonetouch.com helbidera, eta deskargatu ezazu eskuliburu osoa. Webgune horretan, gainera, FAQak kontsulta ditzakezu, software-eguneratzeak egin PC Suite bidez eta abar.



Produktu honek betetzen ditu estatuko SAR mugak (2,0 W/kg). Gehieneko SAR balioak erabiltzailearen eskuliburu honetako 23. orrian azaltzen dira.

www.sar-tick.com

Produktua garraiatzean edo gorputzetik gertu erabiltzen duzunean, erabili horretarako onartutako osagarri bat (estalki bat) edo gorputzetik 1,5 cm-ra izan, irrati-maiztasunen esposizioei buruzko betebeharrak betetzen direla bermatzeko. Kontuan izan produktuak erradiazioak igorri ditzakeela deia egiten ari ez bazara ere.



Musika-erreproduzitailean musika luzaroan ozen entzunda entzumenari kalte egiteko arriskua dago. Doitu zure mugikorraren bolumena arrisku gabe entzuteko. Erabili beti TCT Mobile Limited-en eta haren bazkideen entzungailuak.

ALCATEL **onetouch**®

Euskera - CJB31M]ALAGA

Zure telefonoa



Bolumenaren tekla

Musika-irakurgailua



Entzungailuen Konektorea

MikroUSB konektorea



Egoera-barra

Pantaila nagusia

Nabigazio-tekla / OK

Eskuineko funtzio-tekla

Amaitzeko tekla

Ezabatzeko tekla

Intro tekla

SYM tekla

Informazio-barra

Informazio-barra

Tresna-barra

Ezkerreko funtzio-tekla

Bidaltzeko tekla















Bibrazioaren tekla

Ahots-postontziaren tekla

Maiuskulen tekla

Fn tekla

Hutsune tekla

- 
 - Ezkerreko funtzio-tekla
 - Eskuineko funtzio-tekla
- 
 - Telefonoa hartzeko / Deitzeko
- 
 - Deien erregistroa irekitzeko.
- 
 - Labur sakatuta: Deia amaitzeko
Pantaila nagusira itzultzeko
- 
 - Luze sakatuta: pizteko/jitzaltzeko
- 
 - Luze sakatuta: ahots-postontzira sartzeko
 - Behin sakatuta: karakterea letra larriz idazteko
 - Bi aldiz sakatuta: teklatura letra larriz idazteko moduan blokeatzeko
- 
 - Labur sakatuta: Behin sakatuta: teklen goiko erdiko aldeko karaktere bat sartzeko. Bi aldiz sakatuta: teklen goiko erdiko aldeko karaktere bat sartzeko moduan blokeatzeko teklatura.
 - Fn + B: Bluetootharako sarbidea
 - Fn + M: musika-irakurgailurako sarbidea
 - Fn + P: profiletarako sarbidea.
 - Fn + J : Java aplikazioetarako sarbidea
- 
 - Nabigazio-tekla
 - Aukera bat berresteko (teklaren erdian sakatuta)
- 
 - Labur sakatuta: tarte bat sartzeko.
Pantaila desblokeatzeko.
 - Luze sakatuta: hizkuntzen zerrendara sartzeko
Pantaila blokeatzeko
 - Fn tekla sakatuta duzula, zuriunearen tekla sakatu sartzeko modu bat aukeratzeko
- 
 - Sinbolo-aula sartzeko.
 - Luze sakatu Fn tekla, eta, ondoren, luze sakatu sinbolo-tekla aurpegieren taula sartzeko.
- 
 - Aukera bat berresteko
- 
 - Hurrengo lerroa jauzi egiteko.
 - Bibragailua
- 
 - Bolumena igo edo jaisteko
- 
 - Sakatu, musika-erreproduzitzailan sartzeko

1.1 Egoera-barrako ikonoak ⁽¹⁾



Bateriaren karga-maila.



Bibragailua modua: zure telefonoak dar-dar egiten du baina ez du txirrinik edo soinurik ateratzen, alarmen kasuan izan ezik.



Bluetooth-aren egoera (Aktibatuta).



Bluetooth-aren egoera (audio-gailu bati konektatuta).



Javaren egoera (Aktibatuta).



Entzungailuak konektatuta.



Teklatua eta ukipen-pantaila blokeatuta.



Teklatua eta ukipen-pantaila desblokeatuta.



Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta: zure deiak desbideratu egingo dira.



Alarmak edo hitzorduak programatuta.



Estaldura-adierazlea.



WiFi konektatuta



WiFi deskonektatuta.



Mezu berria ahots-postontzian.



Galdutako deiak.






















Kronometroa aktibatuta dago.



Irratia piztuta.

⁽¹⁾ Gidaliburu honetako ikonoak eta irudiak lagungarriak dira.

-  **Mezu elektronikoak irakurri gabe.**
-  **WAP oharrak**
-  **Roaming-a.**
-  **Memoria-txartela aztertzen ari da.**
-  **Amaitu da memoria-txartelaren azterketa.**
-  **SIM txartela ez dago erabilgarri.**
-  **Linea-aldaketa ⁽¹⁾: aukeratutako linea zein den adierazten du.**
-  **GPRS konexioaren egoera (aktibatuta).**
-  **GPRS konektatzen.**
-  **EDGE konektatzen.**
-  **EDGEa atxikita.**
-  **Musika-irakurgailua aktibatua.**
-  **Mezua jasotzen ari da.**
-  **MMSa jasotzen ari da.**
-  **SMSa bidaltzen.**
-  **MMSa bidaltzen.**
-  **Modu isila: zure telefonoak ez du txiririk edo soinurik ateratzen eta ez du dar-dar egiten, alarmen kasuan izan ezik.**
-  **Irakurri gabeko SMSa**
-  **Irakurri gabeko MMSa.**

⁽¹⁾ Sare-operadorearen arabera.

 **(gorriz) Mezu laburren zerrenda beteta:** zure telefonoak ezin du mezu gehiago jaso. Mezuen zerrendara joan behar duzu, gutxienez SIM txarteleko mezu bat ezabatzeko.

 **Hegaldiko modua.**

 **A2DP konektatuta.**

 **Erreprodukzioa martxan dago.**

1.2 Egoera-zerrenda


Ukitu egoera-barra eta arrastatu beherantz irekitzeko, edo arrastatu gorantz itxeko.

Zerrendako aplikazio batera sartzeko, ukitu ezazu.

1.3 Pantaila nagusia



Elementuak gehitzea:

Menu nagusiko elementu bat gehitzeko modu bat baino gehiago dago:

- Ukitu eta luze sakatu menu nagusiko zerrendako elementua.
- Ukitu  tresna-barran, eta hautatu **“Gehitu widget-a/Gehitu lastebideak”**.
- Ukitu eta luze sakatu pantaila nagusiaren eremu huts bat, hautatu irekitzen den leihoko **“Gehitu widget-a/Gehitu lastebideak”** eta ukitu mahaigainari gehitu nahi diozun elementua.

Elementuak editatzea/ezabatzea:


Pantaila nagusiko elementu bat editatzeko edo ezabatzeko, erabili modu hauetako bat:


Luze sakatu pantaila nagusiko aplikazioan, ukitu  editatzeko (Mis favoritos atalerako bakarrik), ukitu  ezabatzeko, eta, ondoren, sakatu **“Eginda”** operazioa berresteko.

Ukitu  tresna-barran, eta hautatu **“Ezabatu lasterbideak eta widget-ak”**.

Pantaila-atzealdea:

Pantaila-atzealdea pertsonalizatzeko, bi modu dituzu:

- Ukitu eta luze sakatu mahaigaineko eremu huts bat, hautatu **“Horma-papera”**, agertzen diren karpitetako bat ukitu eta hautatu pantailaren atzealdeko irudi bat.
- Ukitu  tresna-barran, hautatu **“Horma-papera”**, eta, ondoren, ukitu karpeta, pantaila-atzealde gisa erabiliko duzun irudia hautatzeko.



Pantaila nagusia handituta azaltzen da, toki gehiago izan dezazun aplikazioak, lasterbideak eta abar gehitzeko. Lerratu pantaila nagusia eskuinerantz eta ezkererantz, horren ikuspegi osoa izateko. Pantailaren behealdean, ezkerrean eta eskuinean, azaltzen diren puntu txikiak adierazten dute bistarazten ari zaren pantaila.

1.4 Tresna-barra

Aurrez zehaztutako menuko elementuak txertatuta dituen tresna-barra, sarbide azkarra izateko lasterbide gisa erabil daitekeena.

2 Tresna-barra.....

2.1 Erabiltzeko moduan jartzea

Atzeko tapa ateratzea/jartzea



SIM txartela sartzea eta ateratzea

SIM txartel bat sartu behar duzu deiak egiteko. Itzali telefonoa eta atera bateria, SIM txartela sartu edo atera aurretik.




Jarri SIM txartela txipa beherantz duela, eta sartu dagokion tokian. Egiaztatu behar bezala sartuta dagoela. Txartela ateratzeko, estutu eta kanporantz atera.

Bateria jartzea/ateratzea



- Sartu bateria eta lerratu bere lekuan klik egin arte.
- Ireki tapa, eta, gero, atera bateria.

Bateria kargatzea



Bateria-kargagailua telefonoarekin eta elektrizitate-hartunearekin konektatu.



Kontsumoa murrizteko eta energia oker erabiltzea/xahutzea saihesteko, deskonektatu kargagailua bateria guztiz kargatuta dagoenean, itzali WiFi eta Bluetooth funtzioak eta bigarren planoan exekutatzen diren aplikazioak horiek erabiltzen ez dituzunean, murriztu atzeko argiaren denbora eta abar.

2.2 Zure telefonoa piztea

Luze sakatu  tekla telefonoa piztu arte.

2.3 Telefonoa itzaltzea

Luze sakatu pantaila nagusiko  tekla.

2.4 Ukipen-pantaila erabiltzea



Ukitzea



Aplikazio batera sartzeko, ukitu behatzarekin.

Desplazamendua

Desplazamendua Korritu pantaila aplikazio, irudi, web-orri eta abarretan gora eta behera mugitzeko.

3 Deiak egitea

Idatzi nahi duzun zenbakia hardware-teklatuan zuzenean.

Sartutako zenbakia Kontaktuak atalean gorde daiteke **“Gorde”** hautatzen baduzu. Nahastu egin bazara, zenbaki okerrak ezaba ditzakezu  edo  sakatuta.

Esekitzeko, sakatu  tekla.

4 Menua antolatzea



Zure doikuntzen arabera aldatzeko diseinatuta dago menu nagusia.

Funtzio horretara sartzeko, hautatu  menu nagusira sartzeko, eta sakatu .

Ordena aldatzea

Joan menu nagusira, hautatu mugitu nahi duzun menuko elementua eta sakatu **“Aukerak|Mugitu”**. Ondoren, menu nagusiko pantailara itzuliko zara, eta ... marka agertuko da hautatu duzun menu nagusian. Aska ezazu nahi duzun tokian.

Erakustea/Ezkutatzea

Sartu **"Mugitu eta kendu"** atalera; hautatutako menuaren ezkerreko kontrol-laukia ukitu erakusteko/ezkutatzeke, eta, ondoren, "Eginda", eragiketa gordetzeko.

5 Mezuak



5.1 Elkarrizketa-modua aktibatua (edo desaktibatua)

Elkarrizketa-modua aktibatuta, txataren historia kronologikoki ikus dezakezu. Elkarrizketa-modua desaktibatuta, karpeta hauetara sar zaitezke: **Sarrerako ontzia, Ez bidalitakoak, Irteerako ontzia, Bidalitakoak, Zirriborroak** eta abar. Bi modu horiek txandakatzeko, hautatu **"Aukerak| Ezarpenak|Elkarrizketa mota|Aktibatuta (desaktibatuta)"**. Elkarrizketa-modua lehenespén gisa konfiguratuta dago, eta argibideak modu horretan daude oinarrituta.

5.2 Mezuak idaztea

Hautatu **"Mezuak|Idatzi mezua"** testu- edo multimedia-mezua sortzeko. Kasu hauetan, SMSak MMS bihurtuko dira automatikoki: irudi, bideo, audio, diapositiba edo bestelako fitxategiak eranstean, edo gaia, helbide elektronikoa bat edo 8 orri baino gehiagoko testua sartzean.



Karaktere bereziak (azentuak) SMSaren tamaina handitzen dutenez, baliteke jasotzaileari zenbait SMS bidaltzea.

Tenporizadorearekin bidaltzea

SMS|MMS bat zehaztutako orduan bidaltzeko programatu (**"Aukerak| Bidalketa-tenporizadorea"**).

6 Posta elektronikoa.....




Posta elektronikoko zerbitzu ezagun batzuetarako (Gmail, Yahoo, AOL...) konfigurazio lehenetsia du zure gailuak. Horrez gain, POP3 edo IMAP 4 posta elektronikoko kontuak ere konfiguratu ditzakezu.

7 Palringo⁽¹⁾

Palringo-ren bat-bateko mezularitzak aukera ematen dizu Palringo kontua duten lagunekin txateatzeko. Bat-bateko mezularitzako beste zerbitzu ezagun batzuetara ere konekta zaitezke Palringo-ren bidez (Yahoo, AIM, GG, ICQ, GTalk, iChat...). Kontuan izan, zure bezeroaren bertsioaren eta Palringo dinamikoaren zerbitzariko aukeren mende egongo dela zerbitzuetarako sarbidea.

8 Kontaktuak

8.1 Kontaktuak kontsultatzea

Kontaktueta sartzeko, hautatu "Kontaktuak" menu nagusian, edo ukitu  tresna-barran. Kontaktu bakoitzaren kokapena identifikatzeko aukera dago, kontaktuaren izenaren ezkerrean ikono bat jarrita.

8.2 Kontaktua gehitzea

Kontaktu berri bat sortzeko, ukitu "Aukerak|Sortu".

Urtebetetzea gogoraraztea

Urtebetetzea gogoraraztea finka dezakezu, kontaktuaren informazioa editatzean. Hala, gailuak urtebetetzearen eguna baino egun bat lehenago gogorarazteko aukera ezar dezakezu.

9 Dei-zerrenda

9.1 Sarbidea

Menu nagusitik funtzio horretara sartzeko, joan "Deiak" atalera, tresna-barra  ukituta edo pantaila nagusian  sakatuta.

⁽¹⁾ Sare-operadorearen arabera.

9.2 Erabilgarri dauden aukerak

“Aukerak” sakatuta hauetara sar zaitezke: **Ezabatu**, **Bidali mezua**, **Gorde kontaktuetan**, **Editatu deitu aurretik** eta abar.

9.2.1 Deiazen doikuntzak⁽¹⁾

Aukera honen bidez, beste aukera hauetara sar zaitezke: **Deiak zain uztea**, **Deien desbideratzeak**, **Deien debekuak**, **Nire zenbakia**, **Zehaztu sarearen bidez**, **Birmarkatze automatikoa** eta abar.

10 Multimedia-aplikazioak

10.1 Musika-irakurgailua.....

Funtzio horretara sartzeko, ukitu  menu nagusia irekitzeko eta hautatu . Zure mugikorreko eta zure memoria-txarteleko musika kudeatzeko malgutasun osoa izango duzu.

10.2 Irudien bisorea.....

Liburutegian dituzu telefonoaren “**Irudiak**” ataleko irudietarako estekak, eta horiek bistaratzeko aukera duzu, modu hauetan: zerrenda-egituran, diapositiba gisa, horma-paper gisa, pizteko/jitzaltzeko irudi gisa, sarrerako dei gisa, eta MMS, posta elektronikoa edo Bluetooth bidez bidal daitezke.

10.3 Bideo-erreproduzitailea

“**Mis vídeos**” albumak grabatutako, jasotako edo deskargatutako bideoak ditu. Karpeta horretako bideo guztiak erreproduzitu, piztuta/itzalita bistaratu, bidali, ezabatu eta sailka ditzakezu.

10.4 Irratia.....

Zure telefonoak RDS⁽³⁾ funtzioa duen irratia⁽²⁾ du. Zure telefonoa irrati arrunt gisa erabil dezakezu eta kanalak gorde. Pantailan irratsaioari buruzko informazioa ikus daiteke Visual Radio zerbitzua eskaintzen duten kanalak sintonizatuz gero. Beste aplikazio batzuk exekutatzen dituzun bitartean, irratia entzun dezakezu.

⁽¹⁾ aldetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

⁽²⁾ Irratiaren kalitatea zauden eremuan kateak duen estalduraren arabera da.

⁽³⁾ Sare-operadorearen eta merkatuaren arabera.

11 Internet⁽¹⁾

11.1 Nire lagunak.....



Erabili webguneetako edukiak zure lagunekin harremanetan egoteko (Bebo, Friendster, Hi5, Myspace...).

11.2 Opera.....



Opera Minik Interneteko esperientzia osatua ematen dizu (zure lagunekin harremanetan zaude, informazioa eskuratzen duzu, bankuko eragiketak egin ditzakezu on line), eta, konprimitutako web-orriei esker, denbora aurrezteko diseinatuta dago.

11.3 Wap.....



Wap aukeretara sartzeko: **Hasierako orria, Laster-markak, Joan URLra, Azken web-helbidea, Azken orriak, Lineaz kanpoko orriak, Sarrerako ontzia, ezarpenak.**

11.4 Berriak



Gailu honek denbora aurrezten lagunduko dizu, eta webgune bateko eguneraketak erraz eskainiko dizkizu. Kanal batean izena eman ondoren, zure mugikorreko RSS eduki guztia erregistratzeko eta kudeatzeko aukera emango dizu, edozein unetan eta edozein lekutan.

11.5 Eguraldia.....



Gogokoen dituzun hirietako eguraldiaren hiru iragarpen kontsultatzeko funtzio bat du telefonoak.

11.6 Facebook.....



Pertsonak haien lagunekin, lankideekin, ikaskideekin edo inguruan bizi direnekin konektatzen ditu Facebook sare sozialak. Erabiltzaileek elkarrekin jarduteko aukera ematen duten funtzio batzuk eskaintzen ditu: Horma; gune horretan lagunak mezuak idatz ditzakete, erabiltzaileak irakur ditzan. Deiak, erabiltzaileek "dei" birtual bat egin dezakete. Opariak, jasotzen duenaren profilean agertzen diren opari birtualak bidaltzeko; Market, erabiltzaileek saldu nahi dituzten objektuak doan bistaritzen dituen eremua, eta abar. Kontu bat irekitzeko, bisitatu <http://www.facebook.com/>.

⁽¹⁾ Sare-operadorearen arabera. Baliteke zerbitzua ematean datu-fluxuaren sareak kostuak sortzea. Baliteke Roaming-ean kargu gehigarriak aplikatzea.

11.7 mTweet



Twitter sare soziala eta mikroblog-zerbitzua da; mundu osoan harrera beroa izan du eta oso ezaguna da. Mugikorren erabiltzaileek berriak eta ideiak argitara ditzakete mezuen edo "post"-en bidez. "Post"-ak egilearen profileko orrian agertzen dira, eta jarraitzaileei bidaltzen zaizkie.

Kontu bat irekitzeko, ikus: <http://twitter.com/>.

11.8 Snaptu⁽¹⁾



Snaptu mugikorrentzako doako aplikazio-plataforma bat da. Horren bidez, mugikorrerako aplikazio bizkor bilakatzen dira zure webgune gogokoak, telefonoan erabil ditzazun.

Zerbitzu erabilienetara sartzeko aukera ematen du, besteak beste, sare sozialak (Facebook, Twitter, Flickr eta Picasa), aisialdiari buruzko berriak, blogak, kirolak eta tokietako gidak. Gainera, erabiltzaileek aplikazioetarako edo webguneetarako estekak gehitu edo ezaba ditzakete.

On line kontu bat irekitzeko, ikus: <http://www.snaptu.com/>.

11.9 Shozu⁽¹⁾



ShoZu-ri esker, gertaera jakin bat zuk nahi duzunekin partekatu dezakezu, argazki, bideo edo blog baten bidez. Materiala lagunei eta familiakoei bidaltzeko, mezu elektronikoak bidaltzeko edo sare sozialetara konektatzeko aukera izango duzu, botoi bat sakatua. Etiketak, izenburuak eta deskribapenak gehitu ditzakezu, kargatu aurretik edo ondoren. Halaber, kargatutako materialari buruz zure lagunek esandakoak ikusi ahal izango dituzu denbora errealean, eta telefono bidez erantzuteko aukera izango duzu nahi duzunean eta nahi duzun tokitik. On line kontu bat irekitzeko, ikus: <http://www.shozu.com/>.

12 Denbora-pasak

12.1 Kronometroa



Kronometroa aplikazio arrunta da, denbora neurtzeko erabiltzen dena; hainbat emaitza gordetzeko eta neurketak eten eta berrabiarazteko aukera ematen du.

⁽¹⁾ Modeloaren arabera.

12.2 Liburu elektronikoa.....



Liburutegi honek liburu elektronikoa ditu (.txt eta .pdb fitxategiak soilik). Irakurtzen ari zaren bitartean, aukera duzu markatzaileak gehitzeko edo hitz- edo esaldi-bilaketaren bidez zehaztutako testura iristeko (**Aukerak** | **Bilaketa**).

12.3 Java.....



Zure telefonoak aplikazioak eta java jokoak⁽²⁾ izan ditzake. Gainera, beste aplikazio eta joko batzuk ere deskarga ditzakezu zure telefonoan.

13 Kamera



Zure mugikorrek kamera du, eta harekin argazkiak atera eta bideoak graba ditzakezu, eta haiekin hainbat gauza egin:

- “Fitxategiak|Nire irudiak” karpeta gorde.
- Multimedia-mezu batean (MMS) bidali beste mugikor batera edo helbide elektronikoa batera.
- Zuzenean posta elektronikoz edo Bluetooth bidez bidali.
- Pantaila nagusia pertsonalizatu.
- Direktorioko kontaktu bati sarrerako irudi gisa esleitu.
- Datu-kable bidez edo microSD txartel bidez ordenagailura transferitu.

14 Profilak



Menu honen bidez gertaera eta inguru bakoitzaren dei-tonuak pertsonaliza ditzakezu.

⁽¹⁾ Sare-operadorearen arabera.

15 Fitxategiak kudeatzea



Telefonoan edo memoria-txartelean Fitxategiak karpetan jasotako audio- eta bideo-fitxategi guztietara sar zaitezke. Aukera honen bidez, beste aukera hauetara sar zaitezke: Nire audio fitxategiak, **Nire irudiak**, **Nire bideoak**, **Liburu el.**, **Nire sorkuntzak**, **Beste batzuk**, **Telefonoa**, **Memoria-txartela** eta **Memoriaren egoera**.


Memoria-txartela sartzea:



MicroSD txartela ateratzeko, lerratu ezazu geziaren noranzkoan, eta altxa ezazu. Gero, sar ezazu microSD txartela urre-koloreko kontaktua beherantz duela. Azkenik, jaitsi microSD txartela, eta lerratu kontrako norabidean, hura blokeatzeko.

16 Bluetooth-a™



Funtzio honetara sartzeko,  tekla sakatu behar duzu menu nagusira sartzeko, eta, ondoren, **Bluetooth** hautatu behar duzu.

17 WiFi-a⁽¹⁾



Funtzio honetara sartzeko,  tekla sakatu behar duzu menu nagusira sartzeko, eta, ondoren, hautatu .

⁽¹⁾ one touch 819 modelorako bakarrik dago eskuragarri.

18 Besteak

18.1 Egutegia..... 15

Menu nagusitik menu honetara sartzean, hilabeteka antolatutako egutegi bat aurkituko duzu zure bilera eta hitzordu garrantzitsuak jasotzeko. Gertaerak dituzten egunak kolorez agertuko dira.

18.2 Kalkulagailua.....

Funtzio honetara sartzeko, hautatu "Kalkulagailua" menu nagusian. Idatzi zenbaki bat, hautatu egin nahi duzun operazioa eta hautatu beste zenbaki bat. Ondoren, sakatu "OK" emaitza bistaratzeko.

18.3 Oharrak

Testu-formatua edo ahots-formatua duen ohar bat sor dezakezu menu nagusiko "Oharrak" aukeran.

18.4 Zereginak

Zereginak kudeatzeko eta zereginen egoera erregistratzeko aukera ematen dizu, eta lehentasunak ezar ditzakezu. Aurreikusten den dataren arabera sailkatzen dira zereginak.

18.5 Erlojua

18.5.1 Alarma

Zure telefono mugikorrak iratzargailua du, eta berriz jotzeko funtzioa dauka.

18.5.2 Munduko erlojua

Munduko erlojuak hainbat hiritako ordua eta ordu-zona erakusten du.

18.5.3 Data eta ordua

Eguna eta ordua doitu ditzakezu, 12/24 orduko formatua kontuan hartuta.dauka.

18.6 Bihurgailua.....

Pisu- eta luzera-aldatzailea erabil dezakezu, ◀ eta ▶ teklekin aldatu nahi duzun unitatea aukeratuta. Ondoren, ukitu zenbakiak sartzeko. Azkenik, sakatu “Aceptar”.

19 Ezarpenak

Pantaila nagusitik, aukeratu  menuko ikonoa, eta, ondoren, aukeratu nahi duzun funtzioa telefonoa pertsonalizatzeko: **Telefono-
ezarpenak, Dei-
ezarpenak, Segurtasuna, Sarea, Konexioak.**

Ukipen-doinkuntzak

- **LCDarenukipen-kalibrazioa** Ukipen-pantaila kalibratzeko, ukitu pantailaren edozein puntu eta kalibraketa martxan jarriko da.
- **Ukipen-dardara** “Aktibatuta” egoeran dagoenean, telefonoak dar-dar egingo du pantaila ukitzean.

Dei batean pantaila blokeatzea

Dei batean pantailaren blokeoa aktibatzeke/desaktibatzeke, hautatu **Actibatuta/Desaktibatuta.**

20 Atera ahalik eta etekin handiena zure mugikorrari

PC programa-paketea

Web orritik, programen bertsio berriak deskargatu ahal izango dituzu doan.

Webcam-a

Telefonoa webcam moduan erabil dezakezu ordenagailuko bat-bateko mezularitzarako.

One Touch Upgrade

One Touch Upgrade erabilita, zure ordenagailutik egunera ditzakezu zure telefonoko programak.

Deskarga ezazu One Touch Upgrade tresna ALCATELen webgunean (www.alcatelonetouch.com), eta instala ezazu ordenagailuan. Abiaraz ezazu tresna, eta eguneratu zure telefonoa, argibideak urratsez urrats jarraituz (kontsulta ezazu tresnarekin batera datorren erabiltzailearen eskuliburua). Hala, zure telefonoak programarik modernoena izango ditu.




Web orritik, programen bertsio berriak deskargatu ahal izango dituzu doan.

21 Testua idazteko modua...


Mezuak idazteko bi idazketa-metodo daude:

- Normal: modu honek aukera ematen du tekla bati loturiko letra bat edo karaktere-sekuentzia bat hautatuz testua idazteko.
- Modo TouchPal: modu honek testua aurreratzeko aukera ematen du teklatura erabiliz idaztean, eta hainbat hizkuntzatan idatzitako testua onartzen du.

Teklatuarekin idaztea


tekla  : Behin sakatuta: karakterea letra larriz idazteko


Bi aldiz sakatuta: teklatura letra larriz idazteko moduan blokeatzeko


tekla  : Behin sakatuta: teklen goiko erdiko aldeko karaktere bat sartzeko.


Bi aldiz sakatuta: teklen goiko erdiko aldeko karaktere bat sartzeko moduan blokeatzeko teklatura.

tekla  : Labur sakatuta: tarte bat sartzeko.

 : Luze sakatuta: hizkuntzen zerrendara sartzeko Fn tekla sakatuta duzula, zuriunearen tekla sakatu sartzeko modu bat aukeratzeko

tekla  : Labur sakatuta: banan-banan ezabatzen du. Luze sakatuta: guztia ezabatzen du.

tekla  : aukera bat berresteko Hurrengo lerroa jauzi egiteko.

tekla  : sinbolo-taula sartzeko. Luze sakatu Fn tekla, eta, ondoren, luze sakatu sinbolo-tekla aurpegieren taula sartzeko.

Erabiltzeko oharrak.....

Telefonoa erabili aurretik, irakurri arretaz kapitulu hau. Fabrikatzailea ez da izango telefonoa behar bezala ez erabiltzeagatik eta jedo eskuliburu honetako argibideen arabera ez erabiltzeagatik gerta litezkeen ondorioen erantzule.

• **SEGURTASUNA IBILGAILUAN**

Egin berri diren azterketek frogatu dutenez, telefono mugikorra gidatzean erabiltzea arrisku-faktore erreala da, baita esku libreko osagarria (ibilgailuetako kita, aurikularrak...) erabiltzea ere. Hori dela eta, autoa aparkatu arte telefonoa ez erabiltzea aholkatzen zaio gidariari.

Gidatzen ari zaren bitartean, ez erabili telefonoa edo aurikularrak musika edo irratia entzuteko. Aurikularrak erabiltzea arriskutsua izan daiteke, eta baliteke zenbait eremutan debekatuta egotea.

Telefonoak erradiazioak igortzen ditu piztuta dagoenean, eta horrek ibilgailuko ekipo elektronikoetan interferentziak sor ditzake, adibidez, gurpilak ez blokeatzeko sistemetan (ABS), segurtasuneko airbagean eta abar. Horregatik, neurri hauek hartu behar dituzu:

- ez jarri telefonoa aginte-mahaiaren gainean edo airbaga zabaltzen den eremuan,
- kontsultatu ibilgailuaren fabrikatzaileari edo kontzesionarioari, ibilgailu barruko tresnak telefono mugikorraren irradi-maiztasunaren aurka behar bezala babesturik dauden.

• **ERABILTZEKO KONDIZIOAK**

Telefonoak behar bezala funtziona dezan, telefonoa noizean behin itzaltzea gomendatzen dizugu.

Itzali telefonoa hegazkinean.

Ez piztu telefonoa ospitaleetan, horretarako dauden eremuetan izan ezik. Telefono hau edo beste ekipo batzuk erabiltzeak gailu elektriko eta elektronikoen edo irradi-maiztasunak erabiltzen dituzten gailuen funtzionamenduan eragin dezake.

Ez piztu telefonoa gas edo likido sukoietatik hurbil. Arauak errespetatu erregai-biltegietan, gasolina-zerbitzuguneetan, produktu kimikoen fabriketan eta leherketa-arriskua dagoen lekuetan.

Piztuta dagoenean, ez jarri telefonoa inoiz tresna mediko batetik (taupada-markagailua, belarriko protesia, insulina-ponpa eta abar) 15 cm baino gutxiagora. Bereziki deiei erantzutean, ez ipini telefonoa taupada-markagailua edo belarriko protesia duzun aldeko belarran, baizik beste aldekoan. Entzumen-arazorik ez izateko, hartu deia telefonoa belarrira hurbildu aurretik. Esku libreko funtzioa erabiltzean, urundu telefonoa belarritik, bolumen anplifikatua kaltegarria izan liteke entzumenerako. Ez utzi hurrei telefonoa edo telefonoaren osagarriak erabiltzen edo horiekin jolasten zu inguruan ez bazaude. Karkasa desmuntagarria ordezkatzeko, kontuan izan erreakzio alergikoak eragin ditzaketen substantziak eduki ditzakeela produktuak. Kontu handiz ibili beti telefonoarekin, eta gorde ezazu hautsik gabeko leku garbian.

Ez utzi telefonoa kondizio kaltegarriak dauden tokietan (hezetasuna edo kondentsazioa, euria, likidoak sartzea, hautsa, itsas brisa eta abar). Fabrikatzaileak -10 °C eta +55 °C bitarteko temperatura gomendatzen du. 55 °C-tik gorako temperatura badago, baliteke pantailan jartzen duena ez irakurtzea, baina hori behin-behineko egoera da eta ez dakar arrisku berezirik. Telefono-sare batzuetan, larrialdi-zenbaki batzuetara ezin da deitu. Ez izan erabateko konfiantzarik zure telefonoan larrialdi-deiak egiteko.

Ez saiatu telefonoa irekitzen, desmuntatzen edo konpontzen.

Ez dadila telefonoa erori, ez jaurti eta ez saiatu tolesten.

Ez pintatu telefonoa.

TCT Mobile Limited-ek gomendatzen dituen eta zure telefono-modeloarekin bateragarriak diren bateriak, kargagailuak eta osagarriak soilik erabili. Hala egiten ez bada, TCT Mobile Limited-ek eta haren filialek ez dituzte haien gain hartuko gerta daitezkeen kalteak. Gogoratu telefonoan gordetzen duzun informazio garrantzitsu guztiaren segurtasun-kopiak egitea edo idatziz erregistratzea. Pertsona batzuek epilepsi krisiak jasan ditzakete edo kordea gal dezakete argi distiratsuen ondorioz (adibidez, bideojokoetakoak). Epilepsi krisi horiek edo kordearen galera inoiz jasan ez duenak ere izan ditzake. Krisiren bat jasan baduzu edo kordea galdu baduzu, edo zure familiar horrelako zerbait gertatu izan bada, galdetu medikuari telefonoan bideojoko horiek erabili aurretik edo telefonoko argi distiratsua aktibatu aurretik.

Gurasoek zaindu behar dituzte haurrek, bideojoko horiek edo argi distiratsua dituzten beste funtzio batzuk erabiltzen dituztenean. Norbaitek sintoma hauetako bat edukiz gero, telefonoa erabiltzeari utzi eta medikuari galdetu behar dio: konbultsioak, begietako edo muskuluetakozko uzkurdurak, kordearen galera, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa. Sintoma horiek gertatzeko aukerak mugatzeko, hartu neurri hauek:

- nekatuta bazaude edo lo egiteko beharra baduzu, ez jolastu telefono mugikorarekin eta ez erabili argi distiratsua duten funtzioak,
- orduro gutxienez 15 minutuko atsedena hartu,
- jolastu beti gelako argiak piztuta daudela,
- jolasteko, ipini pantaila begietatik ahalik eta urrunen.
- jolasten ari zaren bitartean, eskuak, eskumuturrak edo besoak nekatu egiten bazaizkizu edo minduta sentitzen badituzu, hartu atsedena hainbat orduz berriro jokatzen hasi aurretik,
- jokatzen ari zaren bitartean edo jokatu ondoren, eskuak, eskumuturrak edo besoak minduta segitzen badu, ez jolastu gehiago eta joan medikuarenera.

Zure telefonoko jokoak erabiltzean, eskuetako, besoetako, sorbaldako, lepoko edo gorputzeko beste atalen bateko giharretako mina eduki dezakezu. Segitu jarraibideei tendinitisa, karpoko tunelaren sindromea edo muskuluetakozko edo hezurretako beste lesiorik ez izateko:



Musika-erreprouduzitailean musika luzaroan ozen entzunda entzumenari kalte egiteko arriskua dago.

Doitu zure mugikorraren bolumena arrisku gabe entzuteko. Erabili beti TCT Mobile Limited-en eta haren bazkideen entzungailuak.

• BIZITZA PRIBATUA ERRESPETATZEA

Telefono mugikorrekin argazkiak ateratzeari eta soinua grabatzeari buruz zure herrialdean indarrean dauden lege eta arauak errespetatu egin behar dituzu. Arau eta lege horien arabera, erabat debekaturik dago beste pertsona batzuen edo haien ezaugarri pertsonalen argazkiak egitea eta/edo haien ahotsak grabatzea eta argazki edo grabazio horiek erreproduzitzea edo banatzea, bizitza pribatua urratzen dela ulertzen baita. Erabiltzailearen ardura da dagokion baimena duela ziurtatzea, beharrezkoa bada, elkarriketa pribatuak edo konfidentzialak grabatzeko edo beste pertsona bati argazkiak ateratzeko; zure mugikorraren fabrikatzaileak, banatzaileak edo saltzaileak (eta operadoreak) ez dute izango telefonoa behar ez bezala erabiltzeak eragindako ondorioen ardurarik.

• BATERIA

Bateria kendu aurretik, ziurtatu telefonoa itzalita dagoela. Bateria erabiltzean, ohar hauek izan behar dira kontuan:

- Ez ireki bateria (substantzia kimikoak jariatzeko eta erretzeko arriskua dago).
- Ez egin zulorik, ez desmuntatu, ez eragin zirkuitulaburrik.
- Ez bota sutara, ezta zaborretara ere, ez eduki 60 °C-tik gorako tenperaturan. Bateria bota nahi baduzu, ziurtatu ingurumena babesteari buruz indarrean dauden legeen arabera berreskuratuko dela. Ez erabili bateria sortu zen helbururako ez den beste erabilera baterako. Ez erabili inoiz hondatutako bateriarik edo TCT Mobile Limited-ek eta/edo haren filialek aholkatu gabekorik.



Zure telefonoak, bateriak edo osagarriak ikur hau badute, gune hauetako batera eraman behar dituzu gehiago erabil ezin ditzakezunean:

- Ekipo-mota horientzako edukiontzi bereziak dituzten udal-hondakinak deuseztatzeko zentroetara.
- Saltokietako edukiontziak. Produktuak birziklatu egingo dira, ingurumenean substantziarik ez zabaltzeko, eta haren osagaiak berrerabili egingo dira.

Europako Batasuneko herrialdeetan: doan da bilketa-puntuetara sartzea, eta ikur hori duten produktu guztiak toki horietan utzi behar dira.

Europako Batasuneko kide ez diren herrialdeetan: Herrialde edo eskualde horretan biltzeko eta birziklatzeko aukera badago, produktu horiek ez dira bota behar zakarrontzi arruntetara. Bilketa-puntuetara eraman behar dira, birziklatzera.

ERNE! BESTE MODELO BATEN BATERIA JARRIZ GERO, LEHERTZEKO ARRISKUA DAGO. ERABILITAKO BATERIAK BOTATZEKO, SEGI EMANDAKO JARRAIBIDEEI.

• KARGAGAILUAK

Saretik elikatzen diren kargagailuek 0 °C eta 40 °C bitartean funtzionatzen dute.

Zure telefonoaren kargagailuak informazio-tratamendurako eta bulegoko segurtasun-arauek betetzen ditu. Zehaztapen elektriko ugari aplika daitezkeenez, gerta daiteke herrialde bateko kargagailu batek beste herrialde batean ez funtzionatzea. Diseinatu zuten helbururako soilik erabili behar dira.

• UHIN ELEKTROMAGNETIKOAK

Telefono mugikorren modelo guztiak nazioarteko eskakizunekin (ICNIRP) edo Europako 1999/5/EE (R&TTE) Direktibarekin bat etorri behar dute, eta hori, gainera, merkatuan sartu aurretik bete beharreko baldintza da. Osasuna eta segurtasun publikoa babestea –batez ere telefono mugikorren erabiltzaileena– eskakizun edo direktiba horien funtsezko betebeharra da.

TELEFONO MUGIKOR HONEK UHIN ELEKTROMAGNETIKOEKIKO ESPOSIZIOARI BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUAK BETETZEN DITU

Zure telefono mugikorrak irrati-uhinak (uhin elektromagnetikoen irrati-maiztasuna) igorri eta jasotzen ditu, eta nazioarteko araudietan gomendatzen diren uhin elektromagnetikoeikiko esposizioari buruzko mugak errespetatzeko diseinatu da. Arau horiek zientzia-batzorde pribatu batek garatu ditu (ICNIRP, Eradiazio ez-ionizatzaileetatik Babesteko Nazioarteko Batzordeak), eta erabiltzaile guztien segurtasuna bermatzeko segurtasun-tarte garrantzitsu bat barne hartzen dute, erabiltzaile horien adina edo osasun-egoera edozein direla ere.

Absortzio espezifikoareen tasa (SAR, specific absorption rate) deritzon neurri-unitatea erabiltzen dute uhin elektromagnetikoeikiko esposizioari buruzko arauak, zeinak telefono mugikorrek igortzen duten irrati-maiztasuna neurtzen baitu. Telefono mugikorretarako, 2,0 W/kg muga dago. SAR probak potentzia-mailarik altuena igortzen duten telefono mugikorretan egin dira, maiztasun-banda guztietan eta funtzionamendu estandarreko posizioetan. Hauek dira SAR balio altuenak, ICNIRP batzordeak modelo honetarako ezarritako arauen arabera:

Modelo honentzako eta probetan izan ziren kondizioetarako gehieneko SAR balioa.		
Burutik gertu erabiltzeko SAR balioa	GSM 900+Bluetooth (one touch 809) GSM 900+Bluetooth+ Wi-Fi (one touch 819)	1,0 W/kg
Gorputzerako SAR balioa	GSM 900+Bluetooth (one touch 809) GSM 900+Bluetooth+ Wi-Fi (one touch 819)	0,7 W/kg

Telefono honen benetako SAR balioak, erabiltzen den bitartean, adierazitako balio horiek baino baxuagoak dira oro har. Izan ere, eraginkortasun-sistema betetzearren eta sareko interferentziak murriztearren, telefonoaren potentzia operatiboa automatikoki murrizten da deiak egiteko potentzia osoa behar ez denean. Zenbat eta txikiagoa izan telefonoaren potentzia, orduan eta txikiagoa izango da haren SAR balioa.

Gorputzeko SAR probak egiteko, 1,5 cm-ko tartea utzi da gorputzaren eta telefonoaren artean. Telefonoa erabiltzen denean irrati-maiztasunarekiko esposizioari buruzko arauak betetzeko, gutxienez tarte hori utzi beharko litzateke telefonoaren eta gorputzaren artean. Ez baduzu osagarri baimendu bat erabiltzen, ziurtatu produktuak ez duela metalik eta telefonoa gorputzetik tarte horretara geratzen dela.

Osasunaren Mundu Erakundeak adierazi du informazio zientifiko horrek ez duela ziurtatzen ez denik beharrezkoa neurri bereziak hartzea telefono mugikorrek erabiltzeko garaian. Esposizioa murriztu nahi baduzu, mugikorraren erabilera murriztea gomendatzen da, edo, bestela, esku libreko aukera erabiltzea, telefonoa gorputzetik eta burutik urruti edukitzeko.

Informazio gehiago izateko, ikus www.alcatelonetouch.com. orria. Hurrengo orri honetan, eremu elektromagnetikoei eta osasun publikoari buruzko informazioa duzu: <http://www.who.int/peh-emf>. Zure telefonoak bameko antena bat du. Komunikazioetan funtzionamendu-kalitaterik onena izateko, ez ukitu edo hondatu.

Gailu mugikorrek funtzio ugari dituztenez, belarriaren ondoan erabiltzeaz gain, beste posizio batzuetan ere erabil daiteke. Entzungailuekin edo USB datuen kablearekin erabiltzean, gailuak dagokion norabidean egon behar du. Beste osagarriren bat erabili behar baduzu, ziurtatu ez duela inolako metalik, eta kokatu telefonoa gorputzetik 1,5 cm-ra gutxienez.

• LIZENTZIAK

Obigo®

Obrigo AB-ren marka erregistratua da.

microSD

MicroSD-ren logotipoa marka komertziala da.



Bluetooth hitzaren marka eta logotipoak Bluetooth SIG, Inc. enpresarenak dira eta TCT Mobile Limited-ek eta horren filialek marka horiek lizentziapean erabiltzen dituzte. Gainerako marka eta izen komertzial guztiak dagozkien jabeenak dira.

one touch 809/one touch 819 Bluetooth QD ID B017054

TouchPal
CooTek

Shanghai HanXiang (CooTek) Information Technology Co., Ltd.-ren edo horren filialen marka erregistratuak dira TouchPal® eta CooTek®.



Java® eta Java®-n oinarritutako marka komertzial eta logotipo guztiak Sun Microsystems, Inc.-en marka komertzialak edo erregistratuak dira, eta AEBetan eta beste herrialde batzuetan dituzte egoitzak.

Opera Mini™

Opera Mini-ren marka erregistratua da.

facebook

Facebook, Inc.-ren marka komertzialak dira Facebook eta f logotipoa, eta lizentziapean erabiltzen dira.

twitter

Twitter, Inc.-ren marka komertzialak dira Twitter eta T logotipoa, eta lizentziapean erabiltzen dira.

Wi-Fi
CERTIFIED®

Wi-Fi-ren logoa Wi-Fi Alliance-n ziurtatze-marka da.



Snapu, Inc.-ren marka erregistratua da Snapu, eta lizentzia behar da hura erabiltzeko.



Shozu, Inc.-ren marka erregistratua da Shozu, eta lizentzia behar da hura erabiltzeko.

Erabiltzeko oharrak.....

- **Interneteko helbidea:** www.alcatelonetouch.com
- **Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren zenbakia:** ikus "TCT Mobile Services" liburuxka edo Interneteko gure gunea.

+Interneteko gure webgunean, ohiko galderen atala kontsulta dezakezu (FAQ). Posta elektronikoen bidez ere jar zaitezke gurekin harremanetan, edozein zalantza galdetzeko.

Erabiltzailearen eskuliburu honen ingeleseko edo beste hizkuntza batzuetako bertsioak Interneteko gure helbidean deskarga ditzakezu:

www.alcatelonetouch.com

Zure telefonoa telefono-deiak egin eta jasotzeko diseinatutako gailua da. GSM sareetan funtzionatzen du, 900 eta 1800 MHz bandetan.

CE | 588

one touch 803/one touch 813 telefono mugikorrek 1999/05/CE zuzentarauko oinarrizko baldintzak eta aplikatu edo eskatu beharreko gainerako xedapenak betetzen ditu. Zure telefonoaren Adostasun Deklarazioaren kopia osoa eskuratu dezakezu gure web-orrian: www.alcatelonetouch.com.

Lapurretaren aurkako babesa ⁽¹⁾

Zure telefonoa IMEI zenbakiarekin (serie-zenbakia) identifikatuta dago; paketearen etiketan eta telefonoaren memorian dago zenbaki hori. Telefonoa erabiltzen duzun lehen aldiaren zenbakia idatziz jasotzea eta leku seguru batean gordetzea gomendatzen dizugu (* # 0 6 # sakatuta). Gerta liteke poliziak edo zure operadoreak eskatzea telefonoa lapurtuz gero. Telefonoa lapurtzen badizute, zenbaki horrekin telefonoaren funtzionamendua blokeatu ahal izango duzu, eta beste inork ezingo du erabili, ezta SIM txartel berria jarrita ere.

Erantzukizunik eza

Litekeena da desberdintasunak egotea gidaliburu honen eta telefonoaren benetako funtzionamenduaren artean, telefonoaren softwarearen bertsioaren arabera edo operadore bakoitzaren zerbitzu espezifikoaren arabera.

Halako desberdintasunik izanez gero, TCT Mobile-k ez ditu bere gain hartzen, ez eta desberdintasun horiek eragin ditzaketen ondorioak ere; erantzukizun hori operadorearena bakarrik izango da.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

Telefonoaren bermea.....

Zure telefonoa bermatuta dago bi (2) urterako(l), jatorrizko fakturan ageri den erosketa-datatik zenbatzen hasita, erabilera normalean agertzen den akats ororen aurka. Behar bezala beteta aurkeztu behar da faktura hori, garbi adieraziz: izena, modelo, IMEI-a, data eta saltzailea.

Telefonoak erabilera normala eragozten dion akatsen bat baldin badu, berehala eman behar diozu horren berri zure saltzaileari, eta, jatorrizko fakturarekin batera, telefonoa eraman.

Akatsen bat duela egiaztatzen bada, telefonoa (edo haren piezaren bat) konpondu egingo da edo aldatu egingo zaizu, zer komeni den. Hiru (3) hilabeteko bermea dute konpondutako telefonoek eta haien pieza osagarriek akats horren aurka. Antzeko funtzionaltasuna eskaintzen duten pieza berregokituekin egin daiteke konponketa edo telefono-aldaketa.

Piezen eta eskulanaren kostua sartzen da berme honetan, baina ez beste inolako kosturik.

Berme honek ez ditu estaltzen telefonoak eta/edo pieza osagarriek arrazoi hauengatik dituzten akatsak:

- 1) Telefonoa erabiltzen den eremu geografikoan aplikatzen diren erabilera- edo instalazio aginduak edo segurtasun-arauak eta teknikoak ez betetzeagatik.
- 2) TCT Mobile Limited-ek emandakoa edo gomendatutakoa ez den ekipo batera konektatzeagatik.
- 3) Konponketak edo aldaketak TCT Mobile Limited-ek edo haren filialek edo baimendutako mantentze-zentroak baimendu gabeko herritar partikularrek egin badituzte.
- 4) Eguraldi txarragatik, ekaitz elektrikoengatik, suteengatik, hezetasunagatik; likido, jaki edo produktu kimikoren bat sartzeagatik, artxiboak deskargatzeagatik, kolpeak emateagatik, goi-tentsioagatik, korrosioagatik, oxidazioagatik eta abarregatik.

Ez dugu telefonoa konponduko etiketak edo serie-zenbakiak (IMEI) kenduta badaude.

(l) Erabileraren eta sarearen konfigurazioaren araberakoa izango da telefono mugikorren bateriaren iraupena hitz egiteko denborari, jarduerarik gabeko denborari eta bizitza erabilgarri osoari dagokienez. Bateriak hornigai suntsigarritzat jotzen direnez, zehaztasunek diote telefonoa erosi ondorengo lehen sei (6) hilabeteetan eta 200 kargatzeetan (gutxi asko) izango du errendimendurik onena zure telefonoak.

Berme honek ez die eragiten kontsumitzaileak 2003ko uztailaren 10eko 23/2003 legearen arabera dituen eskubideei.

Inondik ere ez dira izango TCT Mobile Limited edo haren filialak inolako ustekabeko kalteren edo ondorioren erantzule (besteak beste, eragiketen edo jarduera komertzialaren etenarena), baldin eta legeak kalte horien gaineko erantzukizunik egozten ez badigu.

Herrialde edo estatu batzuek ez dute uzten ustekabeko kalteak edo ondorioak salbuesten edo murrizten, ezta berme inplizituen iraupena mugatzen ere; beraz, litekeena da aipatutako murrizketak edo salbuespenak zuri ez aplikatzea. Zure telefonoaren legezko bermearen aplikazioari buruzko erreklamazioen bat egin nahi izanez gero, 2007/11/16 Legeak agintzen duenari jarraiki, ipini gurekin harremanetan bezeroaren arretarako telefonoaren bidez (902 113 119) edo helbide honetara idatziz:

TCT Mobile Europe SAS
Immeuble Le Capitole
Parc des Fontaines
55, avenue des Champs Pierreux
92000 Nanterre
France


Alcatel-Lucent-en marka erregistratua da
ALCATEL,
eta TCT Mobile Limited-en lizentziarekin
erabiltzen da. Eskubide guztiak, erreserbatuta
© Copyright 2011 TCT Mobile Limited.
Aldez aurretik iragarri gabe
materialak edo xehetasun teknikoak
aldatzeko eskubidea du TCT Mobile Limited-ek.



Musika-erreprouzitzailan musika luzaroan ozen entzunda entzumenari kalte egiteko arriskua dago. Doitu zure mugikorraren bolumena arrisku gabe entzuteko. Erabili beti TCT Mobile Limited-en eta haren bazkideen entzungailuak.


Arazoak etairtenbideak.....

Laguntza teknikoko zerbitzuarekin harremanetan jarri aurretik, gomendio hauei begiratzea gomendatzen dizugu:


- Telefonoak behar bezala funtziona dezan, telefonoa noizean behin itzaltzea gomendatzen dizugu.
- Bateria optimizatzeke, erabat kargatzea gomendatzen dizugu 
- Telefonoak hobeto funtziona dezan, telefonoaren memorian datu gehiegi ez gordetzea gomendatzen dizugu.

Gainera, puntu hauek egiaztatzea komeni da:

Telefono mugikorra ez da pizten

- Sakatu  pantaila piztu arte
- Egiaztatu bateriaren karga
- Egiaztatu bateriaren kontaktuak, atera eta sartu berriz bateria, eta piztu berriz telefonoa

Telefonoa desaktibatuta geratu da duela zenbait minutu

- Sakatu  tekla.
- Kendu bateria, eta gero, sartu berriz eta piztu telefonoa

Pantaila ez da argi ikusten

- Garbitu pantaila
- Erabili telefono mugikorra gomendatutako erabilera-kondizioetan

Mugikorra bakarrik itzaltzen da

- Egiaztatu telefonoa erabiltzen ez duzunean teklatura blokeatuta dagoela
- Egiaztatu bateriaren karga

Mugikorra ez da behar bezala kargatzen

- Begiratu ea bateria erabat agortuta dagoen. Baldin eta agortuta badago, 20 minutu inguru beharko ditu bateria-kargaren adierazlea pantailan agertzeko.
- Egiaztatu kondizio normaletan kargatzen dela (0 °C eta +40 °C bitartean)
- Begiratu bateria sartuta dagoen. Sartu egin behar da kargagailua konektatu aurretik
- Ziurtatu Alcatel markako bateria eta kargagailua erabiltzen ari zarela
- Atzerrian, begiratu korrante-hartuneen bateragarritasuna

Telefono mugikorra ez dago sare batera konektatuta

- Begiratu telefono mugikorrak beste sareren bat aurkitzen duen beste toki batean
- Egiaztatu sarearen estaldura operadorearekin
- Egiaztatu SIM txartelaren baliozkotasuna operadorearekin
- Saiatu eskuz hautatzen sare erabilgarria(k)
- Saiatu berriz, gero, sareak gainkarga baldin badu


SIM txartelaren errorea

- Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela.
- Galdetu operadoreari zure SIM txartela bateragarria den 3 V edo 1,8 V-ekin, lehengo 5 V-eko SIM txartelak ezin baitaitezke erabili.
- Ikusi SIM txartelaren txipa hondatuta edo marratuta dagoen

Ukipen-pantailak ez du erantzuten

- Egiaztatu telefonoa ez dagoela blokeatuta
- Abiarazi ukipen-pantailaren kalibratzea (Ezarpenak\Telefono-ezarpenak\Ukipen-ezarpenak->Hautatu LCDaren ukipen-kalibrazioa)

Ezin da deirik egin

- Egiaztatu markatu nahi duzun zenbakia markatu duzula eta sakatu  tekla.
- Nazioarteko deientzat, egiaztatu herrialdeko/jeremuko kodeak
- Egiaztatu telefonoa sare batera konektatuta dagoela, eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela
- Egiaztatu abonua operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar)
- Egiaztatu ez dituzula irteerako deiak debekatu

Ezin da deirik jaso

- Egiaztatu telefonoa piztuta eta sare batera konektatuta dagoela (eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela)
- Egiaztatu abonua operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar)
- Egiaztatu ez dituzula sarrerako deiak desbideratu
- Egiaztatu ez dituzula dei jakin batzuk debekatu

Solaskidearen izena ez da azaltzen deia jasotzean

- Egiaztatu operadorearen zerbitzu horretara harpidetuta zaudela
- Solaskideak ez du bere zenbakia transmititzen

Deien audio-kalitatea ez da onena

- Deia egitean, Bolumena tekla bidez doi dezakezu bolumena.
- Egiaztatu sarearen potentzia 

Ezin ditut erabili eskuliburuan azaltzen diren funtzioak

- Egiaztatu badagokizula zerbitzu hori operadoreari ordaintzen diozunaren arabera
- Egiaztatu funtzio horrek ez duela Alcatelen osagarriren bat behar

Ezin dut nire kontaktuen zenbakirik markatu

- Egiaztatu erregistroaren zenbakia ongi gorde duzula
- Egiaztatu, atzerrira deitzen baduzu, herrialdearen aurrezenbakia hautatu duzula

Ezin dut kontakturik sortu “Kontaktua” karpetan

- Egiaztatu SIM txartela ez dagoela beteta; kendu kontaktua edo gorde itzazu telefonoaren agendetan (profesionala, pertsonala).

Solaskideek ezin dute mezurik utzi nire ahots-postontzian

- Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

Ezin naiz ahots-postontzira sartu

- Egiaztatu zure operadorearen ahots-postontziaren zenbakia “Kontaktua” atalean gordeta dagoela
- Saiatu berriz gero, sarea okupatuta badago

Ezin dut MMS mezurik bidali, ez jaso

- Egiaztatu telefonoak memorian leku librea duela; beteta egon daiteke
- Egiaztatu operadorearekin zerbitzu hau baduzun edo ez, eta egiaztatu MMS parametroak
- Egiaztatu operadorearekin SMS zentroaren edo MMS profilen kopurua
- Saiatu berriz gero; SMS zentroa beteta egon liteke



ikonoa agertzen da pantaila nagusian

- Mezu gehiegi gorde dituzu SIM txartelaren memorian: kendu zenbait edo gorde itzazu telefonoaren memorian

“Ningún servicio” mezua agertzen da

- Sarearen estaldura-eremutik kanpo zaude

Okerreko 3 PIN kode sartu ditut

- Jarri harremanetan operadorearekin desblokeatzeko PUK kodea lortzeko

Telefonoari ezin diot ordenagailua konektatu

- Lehenik, instalatu Alcatelen PCrako programen paketea
- Hautatu “Instalación de la conexión” konexioa instalatzeko
- Egiatzatu ordenagailuak Alcatelen PCrako programen paketea instalatzeko behar diren zehaztapen guztiak betetzen dituela

Ezin ditut fitxategi berriak deskargatu

- Egiatzatu lekua libre duzula
- Ezabatu zenbait fitxategi.
- Hautatu MicroSD txartela deskargatutako fitxategiak gordetzeko
- Egiatzatu zure operadorearekin duzun harpidetzaren egoera.

Besteek ezin dute Bluetooth bidez telefonoa detektatu

- Egiatzatu Bluetooth funtzioa aktibatuta dagoela eta zure mugikorra ikusgai dagoela beste erabiltzaileentzat

Telefono mugikorra blokeatuta dago eta ez da pizten

- Begiratu bateria kaltetuta edo erabat agortuta dagoen.
- Kendu bateria eta SIM txartela, eta, ondoren, sartu berriro. Piztu berriro gailua, oraindik funtzionatzen ez badu
- Luze sakatu # tekla, eta, aldi berean, sakatu pizteko/jitzaltzeko tekla segundo batzuez, telefonoa berrabiarazteko.



Erabiltzailearen telefonoko datu guztiak—kontaktuak, argazkiak, mezuak, artxiboak eta deskargatutako aplikazioak (Java jokoak, adibidez)— galdu egingo dira, behin betiko.

Nola lortu bateriak gehiago irautea

- Egiatzatu telefonoari erabat kargatzen utzi diozula (3 ordu gutxienez)
- Karga partzial baten ondoren, baliteke karga-maila behar bezala ez adieraztea. Kargagailua deskonektatu eta gero, itxaron 20 minutu karga-maila zehatza jakiteko.
- Piztu hondoko argia behar duzunean.
- Ahalik eta gehiena handitu posta elektronikoa automatikoki begiratzeko tartea.
- Behar duzunean, eskuz eguneratu berriak eta eguraldiari buruzko informazioa, edo handitu automatikoki begiratzeko tartea.
- Irten Java bigarren planoan martxan izaten duten aplikazioetatik, luzaroan erabili ez behar badituzu.
- Desaktibatu Bluetooth-a, erabili behar ez baduzu.



2008ko Kudeaketaren Kalitatearen
Urrezko Q saria



Q Oro Premio a la Calidad de
Gestión 2008